

## **GALDAKAKO UDALERRIKO TXANDAKAKO APARKALEKUEN DENBORA ETA EREMUAREN KONTROLA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA**

### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Ordenantza honen helburua da Galdakaoko udalerriko txandakako aparkalekuak antolatu eta arautzea.

Horretarako aparkaldi mugatuko neurriak ezarri dira bertan ibilgailuen txandaketa bermatzeko. Horrela aparkaleku-guneak bezalako ondasun urria optimizatu nahi da zuzen banatuz, hala nola txandaketa betetzea bermatzeko ekintza zuzengarriak ezarriz.

### **1. ARTIKULUA. APLIKAZIO EREMUA.**

Ordenantza honen aplikazio-eremua Galdakaoko udalerria da.

Txandakako aparkalekuaren sistema ezartzen den eremuak behar bezala mugatuta eta adierazita egongo dira seinale horizontal eta bertikalen bidez.

### **2. ARTIKULUA. TASAK.**

Galdakaoko Udalak Ordenantza honek jasotako aparkaldiagatiko tasa kobratzea erabakiko balu, tarifak Udaltzatzen Osoko Bilkuran onetsiko dira, eta dagokion Ordenantza Fiskalean jasota egongo dira.

### **3. ARTIKULUA. APARKALDIAREN ARAUKETA EGUNAK ETA ORDUTEGIAK ETA IRAUPENA.**

1.- Ibilgailu baten aparkaldiak, 3.500 Kg-raino, gehienez 2 orduraino iraun dezake. Epe hori iraganez gero, araututako zonaldean ezin izango du aparkatu 2 ordu iragan arte.

2.- Aparkaldi mugatua funtzionatzeko ezarritako egunak eta ordutegiak ondokoak dira:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 22:00etara.
- Larunbatak: 9:00etatik 13:30era.
- Larunbat arratsaldeak eta jaiegunak: kanpoan utzi dira.

### **4. ARTIKULUA. KANPOAN UTZITAKO IBILGAILUAK ETA EREMUAK.**

Aparkaldiko iraupen-mugatit kanpo geratzen dira ondoko ibilgailuak:

- a) Motorrak, motor-bizikletak eta bizikletak, aparkaleku mugaturako seinaleztaturik dauden plazak okupatzen ez badituzte eta horretarako egokitutako lekuetara mugatzen badira.
- b) Euren kategoria edo jarduerarako, udal-baimena duten zonalde erreserbatuetan, aparkaturik dauden ibilgailuak.

- c) Larrialdietako ibilgailuak, anbulantziak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta Polizia, guztiak zerbitzua ematen ari direnean.
- d) d) Gidaria edo bidaiariren bat barruan dagoeneko ibilgailuak, aparkaldiaren denbora bost minututik beherakoa denean.
- e) Elbarrien kotxeak edo bereziki egokituta daudenak, zirkulazioko baimena duten elbarri titularrenak direnak, eta titularrak erabiltzen ari direnean, horretarako eurentzat seinaleztaturik dauden lekuetan.

## **5. ARTIKULUA. APARKATZEKO ARAUAK. BEREIZLEA.**

Txandakako aparkalekuetan aparkatzeko, arau orokor eta berezi guztiak, eta ibilgailuen aparkaldiari eragiten dioten seinalizazioak betetzeaz gain, haizetakoaren barruan, kanpoaldetik bikain ikusteko moduan jarri beharko da ikusgai, ibilgailua aparkatzerakoan makina saltzailean lortutako bereizlea, aparkatu nahi den ibilgailuaren matrikula sartu behar delarik. Bereizle horrek aparkatu den eguna, hilabetea eta ordua adieraziko ditu.

## **6. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK.**

Ordenantza honetan xedatutakoari egindako arau-haustek ondokoak joko dira:

- a) Aparkalekuko ordutegi bereizlean seinaleztatutako aparkatzeko denbora gainditzea.
- b) Ordenantza honetan adierazitako bereizlerik gabe aparkatzea, hala nola ikusteko moduko lekuan ez ipintzea.
- c) Zonalde berean berriro aparkatzea, aparkatzeko gehienezko epealdia amaitu eta oraindik bi orduko epea iragan ez dela.
- d) Erabilitako bereizlea manipulatu, faltsua, baliogabetua, iraungia, matrikula okerra edo ez egokia izatea.

## **7. ARTIKULUA. ZEHAPENAK.**

6. artikuluan tipifikatutako arau-haustek 60,00 euroko isunaz zehatuko dira.

Arau-haustek zehatuko dira, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege-dekretuan, Ibilgailu motordunen Trafikoa, Zirkulazioa eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuan V. Tituluan, Testu Artikulatu hori Eraberritzeko azaroaren 24ko 18/2009 Legaren bidez aldatua, hala nola Galdakaoko Udaleko Zirkulazio Ordenantzaren eta gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

## **8. ARTIKULUA. IBILGAILUAK KENTZEA.**

1. Udaltzaintzak ibilgailu bat bide publikotik kentzea eta udal gordailura eramatea agindu dezake, ibilgailu hori aparkaturik dagoen udal agintaritzak baimentzen duen bereizgarria jarri gabe, edo aparkatzeko baimendutako denboraren hirukoitza gainditzen denean.
2. Suposizio honetan Zirkulazioko Udal Ordenantzako 136. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa ezarriko da.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**LEHENENGOA.**- Ordenantza hau Lapurdi eta Bizkai kalea 42-Ako aparkalekuetan aplikatzeko da.

**BIGARRENA.**- Aurrerantzean, Alkate Presidenteak txandakako aparkalekurako zonalde berrien mugaketa ezarriko du, eskumena duten Teknikariek proposaturik eta aldez aurretik izan beharreko txostenak egin ondoren, Udalbatza Osoari horren berri emanez.

**HIRUGARRENA.**- Alkate Presidenteak aparkatzeko egunak eta orduak alda ditzake puntualki, aurretik bidezko txosten teknikoak ikusita, Udalbatzari horren kontu emanez.

**LAUGARRENA.**- Alkate Presidenteak, Herritarren Segurtasun Arloak arrazoitutako proposamena kontuan harturik, eten dezake, bere lurralde-eremu osoan, edo ez, Ordenantza honen aplikazioa egoki iritzitako epealdietan zehar, trafiko itoa eta aparkalekuekin erlazionatutako arrazoiengatik, edo interes publikoko beste gorabeherengatik, Udaltzaintzari horren kontu emanez.

**BOSGARRENA.**- Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoena Zirkulazioko Udal Ordenantzan eta ezargarria litzatekeen gainerako legerian xedatutakoa beteko da.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, Lapurdiko txandakako aparkalekua arautzen duen Ordenantza indargabetuta geratuko da.

## **AZKEN XEDAPENA.**

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin betiko onetsitako testua osorik argitaratu eta aipatutako artikuluan adierazitako ondorioekin, aipatutako legezko testuko 65.2 artikuluan aurreikusitako epea iragan ondoren.